



Hizkiak: Scott Teplin, 2008

TTipi

Azken hamarkadan, eraikuntzaren sektoreak eskala handian pentsatu du. Hirigintza-plan zabalak, etxebizitza ugari, kirol-ekipamendu izugarriak, autobide eta trenbideak. 2008az geroztik krisiak gogor astindu gaituenetik, eraikitzeko grina nahiko panggal dabil, burumakur. Eraikitzaileek beste lurralde batzuetarako bidea hartu dute. Eta arkitektook? Kalean arkitekto-lagunen artean izaten diren elkarrizketek, normalean honelako kortesiazko galderak izaten dituzte: *“eta lanez, zer moduz?”* Erantzuna azkenaldian beti izaten da honelakoa: *“ba gauza txikiakin, ezer garrantzizkorik ez”*.

Gure artean, ikusten denez, gauza txikiak garatzea bigarren mailako ekintzak izan dira. Badirudi, eskala txikia garatzea arkitektoen aisialdi moduan kontuan hartu izan dela. Bestalde, esamesa ugari izan da: XX. mendeko arkitekto nagusiek eraikinare traza nagusiak definitzen zituzten bitartean, eraikineko elementu txikiagoen ardura laguntzaile, familiartekoen jardura moduan kontsideratu izan dela. Bazterreko ekintza laguntzailea esan nahi baita. Ezaguna da esaera: *“Arkitekto ezagun hark eraikina proiektatzen zuen eta bere familiartekoak sarrerako atea”*.

Guk, ordea, txikiaren erreklamoa egin nahi dugu. Xehetasuna. Detailea. Txikiaren prezisioa edo zehaztasuna.

Txikiaren bitartez gainera, arazo handien soluzioak lor daitezke, buruari astindu ederra eman behar bazaio ere. Ez da zertan dirutza xahutu... Irudimen gehiago bakarrik.

Esperimentazio-laboretegi moduan ere txikian modu errazagoan egin daitezke. Esate baterako maketa eta prototipoak laguntza handikoak dira gerora.

Ondorioz, esan dezakegu, azken aldiko halabeharrak aginduta baino gehiago, aukera polita daukagula eskala-maila honen bertute guztiak jorratzeko. Aprobetxa dezagun garaia eskala-maila txikiari bere garrantzia emateko.

